www.alberdania.net | http://alberdania@alberdania.net ALBERDANIA Istillaga plaza 2, behea C, 20304 Irun **Tel**: + 34 943 63 28 14

Txoriei begiratzen zien gizonari begiratzen zion emakumea

Patxi Zubizarreta

Bilduma: Narrazioa
Generoa: Eleberria
Formatua: 14 x 20,50 cm.
Orrialdeak: 360
Koadernaketa: paperezko azala

Argitalpen data: 2026/11/18


ISBN: 978-84-9868-954-9

SALNEURRIA (BEZ gabe)**:** 20,67 €

SALNEURRIA (BEZ barne)**:** 21,50 €

ITSASOA, BIKOTE-HARREMANAK BAKARDADEA, ANAKORETA, VITA MINIMA, SENTIBERATASUNA, EXISTENTZIA





Sinopsia

Letra larriz egindako literatura da Patxi Zubizarretaren azken nobela: amodioari, bakardadeari eta bidaiari buruzko irudi poetikoz beteriko maisulan bat.

XIX. mendean, Ingalaterrako lorategietan modan egon zen ermitau bat izatea, tximaluzea, kaskezur batekin ibili ohi zena. Muskau Printzeak halako figura exotiko bat nahi izan zuen Alemania eta Polonia artean eraikitako paradisu miresgarrian.

XXI. mendean Crista eta Bastian Bad Muskau parkera joan ziren eztei-bidaian, Graciosenea etxaldean ere agian anakoreta bat hartzeko asmoarekin. Akaberan, lorezain eta zaintzaile itxurarekin, gizon bat konbentzitu zuten, txorientzako jantokiak eta habia kutxak ipini zituena. Hona txoriei begiratzen zien gizona.

Baina jatorri panamarreko Crista pintorea ere misterioa zen Bastianentzat. Haren ustetan, emaztea XIX. mendean ainguratua bizi zen eta, bistan denez, anakoreta gogoko zuen. Hona txoriei begiratzen zien gizonari begiratzen zion emakumea.

Bastian kargaontzietako kapitaina zen eta, behin batez, burutazio bat izan zuen: etxaldean hainbat kamera ezkutu kokatu eta, Southamptondik Panamarako nabigazioa egin beharrean, hurbileko etxola batean geratu zen Graciosenean gertatzen ari zena ikusteko. Hona txoriei begiratzen zien gizonari zein hari begiratzen zion emakumeari begiratzen zien gizona.

Egileaz



Patxi Zubizarreta (Ordizia, 1964)
Ordizia du jaioterri eta Gasteiz sorleku. Prosagilea –*Julien Vinsonen hegaldia, Joan, Loak ezkutatzen duena*…– eta itzultzailea –Eupéryren *Printze Txikia*, Mahfuzen *Mirarien kalezuloa*, Taiaren *Zure argitan bizitzea*…–. Lan ugari itzuli eta saritu dizkiote: *Zerria* lanarekin, esaterako, Lizardi, Euskadi eta Espainiako Sari Nazionala jaso zituen eta Xabier Lete Beka eskuratu zuen nobela hau idazteko. Generoak eta diziplinak bateratuz, hainbat ikuskizun eta performance eskaintzen jarraitzen du bai gurean bai atzerrian.